

Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko UNESCOren konbentzioa



Paris, 2005eko urriaren 20a

Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko UNESCOren konbentzioa

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrak 333. bilera egin du Parisen, 2005eko urriaren 3tik 21era bitartean.

Aditzera eman du kultura-aniztasuna gizateriaren funtsezko ezaugarri bat dela.

Ohartu da kultura-aniztasuna gizateria osoaren ondarea dela, guztion probetxurako balioetsi eta zaindu behar dena.

Ohartu da kultura-aniztasunak mundu aberatsa eta askotarikoa sortzen duela eta horrek aukera-sorta ugaltzen eta gizakien gaitasunak eta balioak handitzen dituela; ohartu da, beraz, kultura-aniztasuna erkidegoen, herrien eta nazioen garapen iraunkorraren eragile nagusietako bat dela.

Gogoan hartu du kultura-aniztasuna, baldin eta demokraziaz, tolerantziaz, justizia sozialaz eta herrien eta kulturen arteko begirunez garatzen bada, ezinbestekoa dela toki-mailan, nazioan eta nazioz gaindi bakea eta segurtasuna lortzeko.

Goraipatu du kultura-aniztasunak duen garrantzia Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta mundu osoan onetsitako beste agiri batzuetan aldarrikatzen diren giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak osorik erabiltzeko.

Nabarmendu du kultura osagai estrategiko gisa sartu behar dela nazioko eta nazioarteko garapenerako politiketan, bai eta garapenerako nazioarteko lankidetzan ere; eta, horrez gain, kontuan izan du Nazio Batuen Milurtekoko Deklarazioa (2000) eta, hor, pobreziarekin errotik amaitzeko egiten den aipamen berezia.

Gogoan hartu du kultura era askotako moldeak hartzen dituela denboran eta espazioan zehar, eta aniztasun hori aditzera ematen dela gizateria osatzen duten herrien eta gizarteen kultura-adierazpenen eta nortasunen originaltasunaren eta aniztasunaren bidez.

Onartu du jakintza tradizionalak —herri autoktonoen jakintza-sistemek eta horiek garapen iraunkorrari egiten dioten ekarpen onuragarriak, bereziki— garrantzia handia dutela, aberastasun inmaterialaren eta materialaren iturri baitira; horrez gain, adierazi du haien babesa eta sustapena era egokian bermatu behar dela.

Aitortu du neurriak hartu behar direla kultura-adierazpenen eta haien edukien aniztasuna babesteko, batez ere kultura-adierazpen horiek desagertzeko edo larriki kaltetzeko arriskuan dauden kasuetan.

Nabarmendu du kultura guztiz garrantzitsua dela, oro har, gizartearen kohesioari begira eta, bereziki, emakumeak gizartearen dituen baldintzak eta betetzen duen zeregina hobetzeari begira.

Ohartu da kultura-aniztasuna sendotzeko, ideiak libre ibili behar direla, eta kulturen arteko etengabeko trukea eta elkarreragina izango dela kultura-aniztasun hori eragingo duena.

Berretsi du pentsatzeko, adierazteko eta informatzeko askatasuna izanik eta, orobat, gizarte-komunikabideen aniztasuna bermatuz, kultura-adierazpenek gora egingo dutela gizarteetan.

Onartu du kultura-adierazpenen aniztasuna —kultura-adierazpen tradizionalak barne— eragile garrantzitsua dela, aukera ematen baitie herriei eta pertsonari beren ideiak eta balioak aditzera emateko eta beste batzuekin trukatzeko.

Gogoan hartu du hizkuntza-aniztasuna kultura-aniztasunaren oinarritzko osagaia dela, eta berretsi du hezkuntzak oinarritzko zeregina betetzen duela kultura-adierazpenak babesteko eta sustatzeko.

Kontuan izan du kulturen bizitasuna oso garrantzitsua dela guztiontzat, batez ere gutxiengo bateko edota herri autoktonoetako pertsonentzat; halaxe jartzen da agerian kultura-adierazpen tradizionalak sortzeko, zabaltzeko eta banatzeko askatasunean; kontuan izan du, halaber, pertsona horiek, beren burua garatze aldera, kultura-adierazpenok eskuratzeko duten eskubidea.

Aspimarratu du kultura-arloko elkarreragina eta sorkuntza oinarritzko eginkizuna dutela, kultura-adierazpenak aberasten eta berritzen baitituzte, eta gizarteak oro har aurrera egin dezan kultura garatzen parte hartzen dutenen eginkizuna indartzen baitute.

Onartu du jabetza intelektualeko eskubideak guztiz garrantzitsuak direla kultura-sorkuntzan parte hartzen dutenei sostengua emateko.

Jabetuta dago kultura-arloko jarduerak, ondasunak eta zerbitzuak aldi berean ekonomikoak eta kulturalak direla, nortasunak, balioak eta esanahiak dituztelako; eta, hortaz, ez dira balio komertziala soilik balute bezala erabili behar.

Ohartu dago mundializazio-prozesuak —informazioaren eta komunikazioaren teknologien bilakaera arinak hainbeste bizkortzen dituenak— erronka handia direla kultu-

ra-aniztasunari begira, bereziki herrialde aberatsen eta txiroen arteko desorekak sortzeko arriskuei dagokienez, nahiz eta, aldi berean, prozesu horiek ez ohiko baldintzak sortzen dituzten kulturen arteko elkarreragina indartu ahal izateko.

Ohartu da zein den UNESCOk esleituta duen betekizun berezia, alegia, kultura-aniztasunarekiko begirunea bermatzea eta komenigarritzat jotzen dituen nazioarteko akordioak gomendatzea hitza eta irudiaren bitartez ideiak aske ibil daitezen.

Aintzat hartu ditu UNESCOk kultura-aniztasunari eta kultura-eskubideak baliatzeari buruz onetsi dituen nazioarteko agirietan jasota dauden xedapenak, bereziki, 2001. urteko Kultura Aniztasunari buruzko Deklarazio Unibertsala.

Hala, bada, 2005eko urriaren 20an, Konbentzio hau onetsi du.

I. Helburuak eta printzipio gidariak

1. artikulua - Helburuak

Konbentzio honen helburuak dira:

- a) Kultura-adierazpenen aniztasuna zaintzea eta sustatzea.
- b) Baldintzak sortzea kulturek aurrera egin dezaten, eta elkarreraginak izan ditzaten, askatasunez eta elkarreraginean parte hartzen duten aldeentzat probetxuzkoak izan daitezen.
- c) Kulturen arteko elkarrizketa bultzatzea, kultura-truke zabalagoak eta orekatuagoak bermatzeko eta, hartara, kulturen arteko begirunea eta bakearen kultura sustatzeko.
- d) Kulturartekotasuna bultzatzea, kulturen arteko eragina garatu eta herrien artean zubiak eraikitze aldera.
- e) Kultura-adierazpenen aniztasunarekiko begirunea sustatzea eta aniztasun horrek duen balioari buruzko kontzientzia piztea toki-mailan, nazioan nahiz nazioartean.
- f) Herrialde guztietan, eta bereziki garatzeko bidean dauden herrialdeetan, kultura eta garapenaren arteko loturak duen garrantzia berrestea; eta laguntza ematea nazioan eta nazioartean lotura horren benetako balioa onar dadin egiten diren jardueri.
- g) Nortasunaren ezaugarriak, balioak eta esanahiak daramatzaten aldetik, kultura-arloko jarduera, ondasun eta zerbitzuek duten izaera berezia onartzea.

h) Estatuek beren lurraldetan kultura-adierazpenen aniztasuna zaintzeko eta babesteko egokitzat jotzen dituzten politikak eta neurriak zaindu, hartu eta aplikatzeko dituzten eskubideak berrestea.

i) Nazioarteko lankidetzeta eta elkartasuna sendotzea, lankidetzako espiritua izanda, garatzeko bidean dauden herrialdeen gaitasunak indartzeko, bereziki, eta kultura-adierazpenen aniztasuna sustatzeko.

2. artikulua - Printzipio gidariak

1. Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeko printzipioa

Kultura-aniztasuna zainduko eta bultzatuko badugu, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bermatu beharko ditugu, hala nola adierazpen-askatasuna, informatzeko eta komunikatzeko askatasuna eta, orobat, pertsonak nahi dituzten kultura-adierazpenak hautatzeko aukera izatea ere bermatu beharko dugu. Inork ezin izango du Konbentzio honetako xedapenetan babes bilatu, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aldarrikatu diren eta nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak urratzeko edota haien aplikazio-eremua mugatzeko.

2. Subiranotasunaren printzipioa

Nazio Batuen Gutunarekin eta nazioarteko zuzenbideko printzipioekin bat, estatuak neurriak hartu eta politikak ezar ditzakete beren lurraldeetan kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko.

3. Kultura guztien duintasun beraren eta errespetuaren printzipioa

Kultura-adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatzu gero, horrek esan nahi du kultura aurrez onartzen dela guztiek duintasun bera dutela eta haiekiko errespetua onesten dela, gutxiengoen kulturak eta herri autoktoenak barne.

4. Nazioarteko elkartasunaren eta lankidetzaren printzipioa

Nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren bidez, herrialde guztiak eta, bereziki, garatzeko bidean dauden horiek gai izan beharko dira beren kultura-adierazpenerako bitartekoak toki-mailan, nazioa edo nazioartean garatu, sortu eta indartzeko, sortzen ari diren edo lehendik finkatuta dauden kultura-arloko industriak barne.

5. Garapenaren alderdi ekonomikoaren eta kulturalen osagarritasunaren printzipioa

Kultura garapenerako eragilerik garrantzitsuenetako bat dela jakinik, garapenaren alderdi kulturalak alderdi ekonomikoak bezain garrantzitsuak dira, eta gizabanakoek eta herriek horietan parte hartzeko eta horietaz gozatzeko oinarrizko eskubidea dute.

6. Garapen iraunkorraren printzipioa

Kultura-aniztasuna aberastasun handia da pertsonentzat eta gizarteentzat. Kultura-aniztasuna babestu, sustatu eta gordetzea ezinbesteko baldintza da garapen iraunkorrari begira, oraingo eta geroko belaunaldien onurarako.

7. Bidezko sarbidearen printzipioa

Munduko bazter guztietatik iristen diren kultura-adierazpenen sorta aberatsa eta askotarikoa eskuratzeko bidezko sarbidea izatea eta, era berean, kulturek adierazteko eta eza-gutzeria emateko bitartekoetara sarbidea izatea kontu garrantzitsuak dira kultura-aniztasuna balioesteko eta elkarren arteko ulermena errazteko.

8. Irekiduraren eta orekaren printzipioa

Estatuek, kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko neurriak hartzen dituztenean, ahalegina egingo dute estatu horretako kultura-adierazpenak munduko gainerako kulturetara modu egokian irekitzeko eta arduratuko dira neurri horiek Konbentzio honek lortu nahi dituen helburuak lortzera zuzenduta egon daitezen.

II. Aplikazio-eremua

3. artikulua - Aplikazio-eremua

Konbentzio hau alderdiek kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko asmoz alderdiek hartzen dituzten politikei eta neurriei aplikatuko zaie.

III. Definizioak

4. artikulua - Definizioak

Konbentzio honen ondoreetarako:

1. Kultura-aniztasuna

“Kultura-aniztasuna” da taldeen eta gizarteen kulturek aditzera emateko dituzten era ugarien multzoa. Adierazpen horiek taldeen eta gizarteen barruan eta haien artean transmititzen dira.

Kultura-aniztasuna ez da bakarrik azaltzen gizateriaren kultura-ondarea —dauden kultura-adierazpen ugariak esker— aditzera eman, aberastu eta transmititzeko dauden era ugarien bitartez; aldiz, kultura-aniztasuna ere azaltzen da sorkuntza artistikorako modu ezberdinen zein kultura-adierazpenak ekoitzi, zabaldu, banatu eta gozatzeko moduen bitartez, erabiltzen diren bitartekoak eta teknologiak edozein direlarik ere.

2. Kultura-edukia

“Kultura-edukia” terminoak kultura-nortasunak dituzten edo nortasun horiek aditzera ematen dituzten zentzu sinboliko, dimentsio artistikoa eta balio kulturalak adierazi nahi ditu.

3. Kultura-adierazpenak

“Kultura-adierazpenak” dira pertsonen, taldeen eta gizarteen sorkuntzaren ondorioz sortu diren eta kultura-edukia duten adierazpideak.

4. Kultura-jarduerak, -ondasunak eta -zerbitzuak

“Kultura-jarduerak, -ondasunak eta -zerbitzuak” dira, kalitatearen, erabileraren edo helburu zehatzen ikuspegitik, kultura-adierazpenak adierazten edo transmititzen dituzten jarduerak, ondasunak eta zerbitzuak, beren balio komertziala alde batera utzita. Kultura-jarduerak helburua izan daitezke berez, edo, bestela, tresna lagungarria izan daitezke kultura-ondasunak eta -zerbitzuak ekoizteko.

5. Kultura-industriak

“Kultura-industriak” dira arestian azaldutako 4. paragrafoan zehatzen diren kultura-ondasunak edo -zerbitzuak ekoizten edo banatzen dituzten industria guztiak.

6. Kultura-politikak eta -neurriak

“Kultura-politikak eta -neurriak” kulturari dagozkion politikak eta neurriak dira, tokikoak, nazioak, eskualdekoak edota nazioartekoak; politika eta neurri horiek, betiere, kulturaren oinarrituta egon behar dute edo horien xedea pertsona, talde edo gizartearen kultura-adierazpenetan eragin zuzena izatea izan behar da: eragin zuzen hori izango da, bereziki, kultura-jarduerak, -ondasunak eta -zerbitzuak sortu, ekoitzi, zabaldu eta banatzea, bai eta haietara iristeko bidea erraztea ere.

7. Babesa

“Babesa” da neurriak hartzea, kultura-adierazpenen aniztasuna babestu, gorde eta aberasteko xedearekin.

“Babestea” da neurri horiek hartzea.

8. Kulturartekotasuna

“Kulturartekotasuna” da hainbat kultura berdintasun egoeran egotea eta haien artean bidezko elkarreragina egotea, eta aukera egon dadila, halaber, elkarriketaren eta elkarrekiko begirunezko jarreraren bidez eskuratu diren kultura-adierazpen partekatutakoak sortzeko.

IV. Alderdien eskubideak eta eginbeharrak

5. artikulua - Eskubideei eta eginbeharrei buruzko araudi orokorra

1. Alderdiek, Nazio Batuen Gutunarekin, nazioarteko zuzenbideko printzipioekin eta unibertsalki aitortuta dauden giza eskubideen agiriekin bat, berretsi egiten dute eskubide osoa dutela beren kultura-arloko politikak formulatzeko eta aplikatzeko, kultura-adierazpenen aniztasuna zainduko eta sustatuko duten neurriak hartzeko, bai eta nazioarteko lankidetzaren indartzeko ere, hartara, Konbentzio honetan jasotako helburuak lortze aldera.

2. Alderdi batek bere lurraldeko kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta indartzeko politikak ezartzen eta neurriak hartzen dituenean, politika eta neurri horiek koherenteak izan beharko dute Konbentzio honetan jasotako xedapenekin.

6. artikulua - Alderdiek nazioan dituzten eskubideak

1. Kultura-arloan dituzten politiken eta neurrien —4. artikuluko 6. paragrafoan zehazten diren bezala— esparruan, eta partikularren egoera eta beharrak aintzat hartuta, alderdiek neurriak hartu ahal izango dituzte beren lurraldetan kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko.

2. Neurri horiek honelakoak izan daitezke:

- a) Kultura-adierazpenen aniztasuna babestera eta sustatzera zuzendutako erregelamendu-neurriak.
- b) Nazioko lurraldean eskuragarri dauden kultura-arloko jarduera, ondasun eta zerbitzu guztien artean, nazioko kultura-arloko jarduera, ondasun eta eskubideei horiek sortu, ekoitzi, banatu, zabaldu eta erabiltzeko aukera egokiak eskaintzen dizkieten neurriak, jarduera, ondasun eta zerbitzuen erabiltzen den hizkuntzaren gaineko xedapenak barne.
- c) Nazioko kultura-arloko industria independenteei eta egituratu gabeko sektorearen jarduerari kultura-ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko, zabalteko eta banatzeko baliabideetara iristeko benetako bidea emango dieten neurriak.
- d) Finantza-laguntza publikoa emateko neurriak.
- e) Irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta, era berean, kultura-arloko erakunde publikoak eta pribatuak, artistak eta bestelako profesionalak kultura-arloko ideiak, adierazpenak, jarduerak, ondasunak eta zerbitzuak askatasunez trukatzera eta mugitzera bultzatzeko neurriak, bai eta horiek guztiek beren jardueretan enpresa-espirtua eta espiritu sortzailea izan dezatela sustatzea helburu duten neurriak ere.

f) Beharrezkoak diren zerbitzu publikoko instituzioak era egokian sortzeko eta haiei laguntza emateko neurriak.

g) Artistei eta kultura-adierazpenak sortzen parte hartzen duten gainerako pertsonen bultzada eta laguntza emateko neurriak.

h) Gizarteko komunikabideen aniztasuna sustatzera zuzendutako neurriak, irratiko zerbitzu publikoaren sustapena barne.

7. artikulua - Kultura-adierazpenak sustatzeko neurriak

1. Alderdiek ahalegina egingo dute beren lurraldean ingurune zehatz bat sortzeko, pertsonak eta taldeak zenbait jarduera egitera bultzatze aldera; hain zuzen, jarduera hauek:

a) Beren kultura-adierazpenak sortu, ekoitzi, zabaldu eta banatzea, eta haietara iristeko modua izatea; behar bezalako arreta eskainiko zaie emakumeek eta gizarteko hainbat taldek —gutxiengoetakoak eta herri autoktonoetakoak diren pertsonak barne— dituzten egoera eta beharrezkoak bereziki.

b) Alderdi bakoitzaren lurraldean eta munduko gainerrako herrialdeetan sortzen diren kultura-adierazpenak eskura izatea.

2. Era berean, alderdiek ahalegina egingo dute aintzat har dadin artistek, sorkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiek, kultura-erkidegok eta artistei lanean sostengua ematen dieten erakundeek egiten duten ekarpen garrantzitsua; ahalegina egingo dute, orobat, aintzat har dadin haiek egiten duten lan funtsezko hori, alegia, kultura-adierazpenen aniztasuna aberastea.

8. artikulua - Kultura-adierazpenak babesteko neurriak

1. Bosgarren eta seigarren artikuluetan xedatutakoaren kontra jarri gabe, alderdi batek zehaztu ahal izango du egoera berezirik dagoen, hau da, kultura-adierazpenak alderdi horren lurraldean galtzeko arriskuan dauden, edo mehatxu larri baten pean dauden, edo adierazpenok babes-teko premia izango duten neurriak hartu behar diren.

2. Alderdiek egokitzat jotzen dituzten neurri guztiak hartu ahal izango dituzte 1. paragrafoan aipatzen diren egoeretan dauden kultura-adierazpenak zaintzeko eta babesteko, Konbentzio honetan ezarritako xedapenekin bat.

3. Alderdiek 23. artikuluan aipatzen den Gobernuen arteko Batzordeari jakinaraziko dizkiote egoerari aurre egiteko hartu dituzten neurri guztiak, eta Batzordeak bidezkoztat jotzen dituen gomendioak eman ahal izango ditu.

9. artikulua - Informazioa trukitzea eta gardentasuna

Alderdiei dagokienez:

- a) Lau urtean behin UNESCOri egindako txostenetan, informazio egokia eman behar dute beren lurraldeetan eta nazioartean kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko hartu dituzten neurriei buruz.
- b) Harremanetarako pertsona bat izendatuko dute, eta bera izango da Konbentzio honi buruzko informazioa trukitzeaz arduratuko dena.
- c) Kultura-adierazpenen aberastasuna babesteari eta sustatzeari buruzko informazioa jakinarazi eta trukatu egingo dute.

10. artikulua - Publikoa heztea eta sentsibilizatzea

Alderdiek honakoa egin beharko dute:

- a) Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko duen garrantzia ulertarazi eta sustatu behar dute, besteak beste, jendea hezteko eta areago sentsibilizatzeko programez baliatuz.
- b) Lankidetzan aritu behar dira beste alderdi batzuekin eta nazioarteko eta eskualdeko erakundeekin, artikulua honen helburuak lortze aldera.
- c) Ahaleginak egin behar dituzte sorkuntza sustatzeko eta ekoizteko gaitasunak indartzeko: horretarako, hezkuntza-, prestakuntza- eta truke-programak ezarri behar dituzte kultura-industriaren arloan. Neurri horiek ezartzerakoan kontuan izan behar da, betiere, ezartze horrek ez dezala ondorio txarrik eragin ekoizteko molde tradizioaletan.

11. artikulua - Gizarte zibilaren parte-hartzea

Alderdiek onartzen dute gizarte zibilak kultura-adierazpenak babesteko eta sustatzeko zeregin garrantzitsua egiten duela. Alderdiek gizarte zibilaren parte hartze eraginkorra bultzatuko dute, Konbentzio honetako helburuak lortze aldera.

12. artikulua - Nazioarteko lankidetzaren sustatzea

Alderdiek ahalegina egingo dute bi aldetako lankidetzaren indartzeko, eskualdekoa nahiz nazioartekoa, kultura-adierazpenen aniztasuna sustatzea erraztuko duten baldintzak sortze aldera, eta kontuan izango dituzte, bereziki, 8. eta 17. artikuluetan jasota dauden egoerak, batez ere xede hauek lortzeko:

- a) Alderdiek kulturaren inguruko politikari buruz hitz egin dezatela erraztea.

b) Sektore publikoak kultura-instituzio publikoetan dituen gaitasun estrategikoak edo kudeatze-ardurak indartzea; horretarako, nazioarteko lanbide- eta kultura-ardurak trukeak bultzatuko dira, bai eta jardunbiderik egokienak denen artean aprobeitza ditzatela ere.

c) Gizarte zibilaren, gobernuz kanpoko erakundeen, sektore pribatuaren eta erakunde horien guztien arteko harremanak indartzea, kultura-adierazpenen aniztasuna sustatzeko eta bultzatzeko.

d) Teknologia berrien erabilera sustatzea eta lankidetzari bihotza ematea, informazioaren trukea eta kultura-ardurak ulermena zabaltzeko eta, era berean, kultura-adierazpenen aniztasuna indartzeko.

e) Batera ekoizten eta banatzen jarduteko akordioak sinatu daitezela bultzatzea.

13. artikulua - Kultura garapen iraunkorrean txertatzea

Alderdiek ahalegina egingo dute kultura beren garapen-politikan, maila guztietan, txertatzeko, hartara, baldintza egokiak egon daitezkeen garapen iraunkorrari begira, eta, esparru horretan, kultura-adierazpenen aniztasuna babesteari eta sustatzeari lotuta dauden alderdiak bultzatu daitezkeen.

14. artikulua - Garapenerako lankidetzaren sustatzea

Alderdiek ahalegina egingo dute garapen iraunkorrerako lankidetzari laguntzeko eta txirotasuna gutxitzeko, batez ere, garatzeko bidean dauden herrialdeen beharrez zehazteko dagokienez; horren guztiaren bidez, bada, kultura-sektore dinamikoa ager dadin lagundu nahi da eta, horretarako, besteak beste, bide hauek baliatuko dira:

a) Garatzeko bidean dauden herrialdeetako kultura-industriak indartzea:

i) Sortu eta garatu egingo dira garatzeko bidean dauden herrialdeek kultura ekoizteko eta zabaltzeko dituzten gaitasunak.

ii) Lan egingo da herrialde horiek kulturaren arloan egiten dituzten jarduerak, ondasun eta zerbitzuek mundu-mailako merkatura eta nazioarteko banaketa-sareetara iristeko bide zabala izan dezaten.

iii) Laguntzak emango dira tokiko eta eskualdeko merkatu bideragarriak sor daitezkeen.

iv) Ahal denean, neurri egokiak hartuko dira garatutako herrialdeetan, garatzeko bidean dauden herrialdeetako kultura-ardurak jarduerak, ondasun eta zerbitzuak garatutako herrialdeetara errazago sar daitezkeen.

v) Laguntzak emango dira sorkuntza lanerako eta, ahal den neurrian, erraztu egingo da garatzeko bidean dauden herrialdeetako artistak batetik bestera mugitu daitezela.

vi) Garatutako eta garatze bidean dauden herrialdeen artean lankidetzaren egokia egon dadila sustatuko da, musikaren eta zinearen arloetan bereziki.

b) Gaitasunak sortzea; horretarako, informazioa, esperientziak eta eskumenak trukatu dira, eta garatzeko bidean dauden herrialdeetako giza baliabideei prestakuntza eskainiko zaie, hala sektore publikoan nola pribatuan. Prestakuntza hori, batez ere, arlo hautan eskainiko zaie: gaitasun estrategikoak eta kudeaketa gaitasunak; politikak lantzea eta ezartzea; kultura-ondasunen eta zerbitzuen banaketaren sustapena; enpresa txiki eta ertainen zein mikroenpresen sustapena; teknologiaren erabilera; eta eskumenen garapena eta transferentzia.

c) Teknika eta jakintza praktikoak transferitzea: pizgarri egokiak sartuko dira, batez ere kultura-arloko enpresen eta industriaren arloan.

d) Finantza-laguntza ematea, honela:

i) Kultura Aniztasunerako Nazioarteko Funtsa sortuko da, 18. artikuluan ezarritakoarekin bat.

ii) Garapenerako laguntza ofiziala emango da, beharrezkoa denean, laguntza teknikoa barne, sorkuntza piztu eta bultzatze aldera.

iii) Finantza-laguntza emateko bestelako modalitateak, hala nola, interes-tasa txikiko maileguak, diru-laguntzak eta beste finantzabide batzuk.

15. artikulua - Lankidetzaren modalitateak

Alderdiek bultzatu egingo dute sektore publikoaren, sektore pribatuaren eta irabazteko asmorik gabeko erakundearen arteko elkarrekin sor daitezela, eta haietako bakoitzaren barnean ere bai, horrenbestez, garatzeko bidean dauden herrialdeei beren indarrak sendotzen laguntzeko, kultura-adierazpenen aniztasuna babeste eta sustatze aldera. Elkarrekin berritzaile horiek arreta berezia egingo diote, garatzeko bidean dauden herrialdeen beharrezko praktikoaren arabera, azpiegiturak, giza baliabideak eta politikak sustatzeari, bai eta kultura-arloko jarduerak, ondasunak eta zerbitzuak trukatzeari ere.

16. artikulua - Garatzeko bidean dauden herrialdeei lehentasunezko tratua ematea

Garatutako herrialdeek laguntza emango dute garatzeko bidean dauden herrialdeekin kultura-trukeak egiteko, eta, hala, lehentasunezko tratua emango diete garatzeko bidean dauden herrialdeetako artistei eta kulturako bestelako profesionali, bai eta herrialde haietatik iritsitako kultura-ondasunei eta zerbitzuei ere, esparru instituzional eta juridiko egokiaren bitartez.

17. artikulua - Nazioarteko lankidetzaren kultura-adierazpenak arrisku larrian daudenean

Alderdiak lankidetzan arituko dira elkarri laguntza emateko, eta arreta berezia jarriko diete garatzeko bidean dauden herrialdeei, 8. artikuluan jasota dauden egoeretan.

18. artikulua - Kultura Aniztasunerako Nazioarteko Funtsa

1. Kultura Aniztasunerako Nazioarteko Funtsa bat eratu da; hemendik aurrera "funtsa" esango zaio.

2. Funtsa funts fiduziariekin eratuko da, UNESCOren Finantza Arautegiak ezarritakoarekin bat.

3. Funtsaren baliabideak hauek izango dira:

a) Alderdiek beren borondatez egindako ekarpenak.

b) UNESCOren Konferentzia Nagusiak xede horretarako bideratzen dituen finantza-baliabideak.

c) Nazio Batuen sistemako bestelako estatu, erakunde eta programek, eskualdeko nahiz nazioarteko erakundeek, erakunde publiko nahiz pribatuak eta partikularrek egiten dituzten ekarpenak, dohaintzak edo legatuak.

d) Funtsaren baliabideek sorrarazitako interes guztiak.

e) Funtsaren alde antolatutako diru-bilketetan eta ekitaldietan bildutako zenbatekoa.

f) Funtsaren Arautegiak baimendutako gainerako baliabideak.

4. Gobernuen arteko Batzordeak Funtseko baliabideak erabil ditzala ala ez erabakitzeko, 22. artikuluan aipatutako Alderdien Biltzarrak emandako jarraibideak hartuko dira aintzat.

5. Gobernuen arteko Batzordeak xede orokorreko edo zehatzeko ekarpenak edo laguntzak onartu ahal izango ditu, proiektu zehatzei badagozkie, eta, betiere, proiektu horiek Batzordearen onespenez jaso badute.

6. Funtsari egindako ekarpenak ezin dira egon baldintza politikoen, ekonomikoen edo bestelako baldintzen menpe egon, baldintza horiek bateraezina badira Konbentzio honek lortu nahi dituen helburuekin.

7. Alderdiek borondatezko ekarpenak jarriko dituzte aldi berean, Konbentzio hau aplikatze aldera.

19. artikulua - Informazioaren trukea, azterketa eta zabalkundea

1. Alderdiek adostu egin dute informazioa trukatea eta jakintza espezializatuak elkarbanatzea, bai kultura-adierazpenen aniztasunaren inguruko informazioa eta estatistikak biltzeari buruz, bai eta adierazpenok babesteko eta sustatzeko jardunbide egokienei buruz ere.

2. Idazkaritzan dauden tresnak baliatuz, UNESCOk laguntza emango du informazio, estatistika eta jardunbide egoki guztiak bildu, aztertu eta ezagutarazteko.

3. Horrez gain, UNESCOk datu-banku bat sortuko du eta datu-banku hori eguneratuta mantendu; datu-banku hori kultura-adierazpenen arloan aritzen diren sektore eta gobernuko erakunde pribatu eta irabazi-asmorik gabekoei buruzkoa izango da.

4. Informazioa biltzeko lana errazagoa izan dadin, UNESCOk arreta berezia jarriko dio bilketa horren inguruko laguntza eskatu duten alderdietan gaitasun eta ahalmen espezializatuak sortzeari.

5. Artikulu honek aipatzen duen informazio-bilketak 9. artikuluan adierazten den informazioa osatuko du.

V. Beste agiri batzuekiko harremanak

20. artikulua - Beste agiri batzuekiko harremanak: elkarren artean indartzea, osatzea eta mendekoak ez izatea

1. Alderdiek onartzen dute asmo onez bete behar dituztela Konbentzio honen ondorioz eta alderdiak kide diren gainerako itunen ondorioz dagozkien betebeharrak. Hortaz, Konbentzio hau gainerako itunen menpe jarri gabe:

a) Konbentzio hau eta alderdiak kide diren gainerako itunak elkarren artean indartu daitezela sustatuko dute.

b) Alderdiek, kide diren gainerako itunak interpretatu eta ezartzean edo nazioarteko bestelako betebeharrak hartzean, Konbentzio honen xedapen egokiak hartuko dituzte aintzat.

2. Ezin izango dira interpretatu Konbentzio honetako xedapenak alderdiak kide diren nazioarteko bestelako itunen ondorioz dituzten eskubideen eta betebeharren aldaketa direnik.

21. artikulua - Nazioarteko kontsultak eta koordinazioa

Alderdiek hitz ematen dute Konbentzio honen helburuak eta printzipioak sustatuko dituztela nazioarteko beste foro batzuetan. Ondorio horretarako, hala behar denean, alderdiek kontsulta egingo diote elkarri, helburu eta printzipio horiek aintzat hartuta.

VI. Konbentzioko organoak

22. artikulua - Alderdien Biltzarra

1. Alderdien Biltzarra eratuko da. Alderdien Biltzarra Konbentzio honen osoko bilkura eta organo gorena izango da.

2. Alderdien Biltzarrak ohiko bilera bat egingo du bi urtean behin, eta, posible den guztietan, bilera hori eta UNESCOren Biltzar Orokorra aldi berean egin behar dira. Alderdien Biltzarrak hala erabakitzen duenean edo Gobernuen arteko Batzordeak gutxienez alderdien heren batek ildo horretan egindako eskabideren bat jasotzen duenean, ohiz kanpoko bilera egin ahal izango du.

3. Alderdien Biltzarrak bere arautegia onetsiko du.

4. Alderdien Biltzarrak eginkizun hauek edukiko ditu, besteak beste:

a) Gobernuen arteko Batzordeko kideak hautatuko ditu.

b) Gobernuen arteko Batzordeak Konbentzio honetako alderdiei buruz igortzen dituen txostenak jasoko eta aztertuko ditu.

c) Gobernuen arteko Batzordeak Biltzarrak eskaturik prestatu dituen jarraibide praktikoak onetsiko ditu.

d) Konbentzio honen xedeak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako neurriak hartuko ditu.

23. artikulua - Gobernuen arteko Batzordea

1. UNESCOn, Kultura Adierazpenen Aniztasuna babesteko eta sustatzeko Gobernuen arteko Batzordea eratuko da, hemendik aurrera "Gobernuen arteko Batzordea" deituko dena. Hor, Konbentzioko kide diren estatuen 18 ordezkari egongo dira; Alderdien Biltzarrak aukeratutako ditu, lau urteko agintaldirako, hain zuzen ere, Konbentzio hau 29. artikuluan ezarritakoari jarraiki indarrean sartzen denetik aurrera.

2. Gobernuen arteko Batzordeak bilera bat egingo du urtean.

3. Gobernuen arteko Batzordea Alderdien Biltzarraren agindupean arituko da, eta horrek emandako jarraibideak beteko ditu eta egiten dituen jardueren berri eman beharko dio.

4. Konbentzioan alderdi gehiago baleude, 50, hain zuzen ere, Gobernuen arteko Batzordeak 24 kide izan beharko lituzke.

5. Gobernuen arteko Batzordeko kideak hautatzean, ordezkariak geografiko orekatua izateko eta txandaketa egiteko irizpideak hartu beharko dira aintzat.

6. Konbentzio honetan ematen zaizkion gainerako eskumenen kontra jarri gabe, Gobernuen arteko Batzordeak eginkizun hauek edukiko ditu:

a) Konbentzioaren helburuak sustatuko ditu eta aplikatzen direla sustatu eta gainbegiratuko du.

b) Alderdien Biltzarrak, Konbentzioaren xedapenak betetze eta aplikatze aldera, jarraibide praktikoak eskatzen baditu, Gobernuen arteko Batzordeak jarraibideak prestatuko ditu eta Alderdien Biltzarrari aurkeztu, horrek onetsi ditzan.

c) Alderdien txostenak igorriko dizkio Alderdien Biltzarrari, eta edukiaren laburpena eta Gobernuen arteko Batzarrak egindako oharrak ere bai.

d) Gomendio egokiak emango ditu, Konbentzioko alderdiek, Konbentzioaren xedapen egokiei eta, bereziki, 8. artikuluari jarraiki, Gobernuen arteko Batzordeari jakinarazten dizkieten gaietan.

e) Prozedurak eta kontsultarako bestelako tresnak ezarriko ditu Konbentzio honen xede eta printzipio nagusiak nazioarteko bestelako foroetan sustatzeko.

f) Alderdien Biltzarrak eskatutako beste edozein zeregin egingo du.

7. Gobernuen arteko Batzordeak, bere Arautegiari jarriki, une oro gonbit egin ahal izango die erakunde publikoei nahiz pribatuei, eta partikularrei ere bai, bere bileretan parte har dezaten eta, hartara, gonbidatu dituen horiei gai berezi batzuei buruz kontsultak egin ahal izateko.

8. Gobernuen arteko Batzordeak bere Arautegia prestatuko du eta Alderdien Biltzarraren onespeneraren pean jarriko du.

24. artikulua - UNESCOren Idazkaritza

1. Konbentzioaren organoek UNESCOren Idazkaritzaren laguntza izango dute.

2. Idazkaritzak Alderdien Biltzarreko eta Gobernuen arteko Batzordeko agiriak prestatuko ditu, bai eta horien bileretako aztergai-zerrenden proiektuak ere; eta, horrez gain, laguntza emango du bilerotan hartzen diren erabakiak ezar daitezen eta ezarpen horri buruz informatuko du.

VII. Azken xedapenak

25. artikulua - Eztabaidak konpontzea

1. Eztabaidarik sortuz gero I. Konbentzio honen interpretazioa edo ezarpena dela-eta, alderdiek ahalegina egingo dute eztabaida hori negoziazioen bidez konpontzeko.

2. Eztabaida duten alderdiek, negoziatu ondoren, akordio-rik lortzen ez badute, batera jo ahal izango dute hirugarren alderdi batengana, laguntza edo bitartekotza eskatzeko.

3. Laguntzarik edo bitartekotzarik eskatu ez bada, edo negoziazio, laguntza edo bitartekotzaren bidez konponbiderik lortu ez bada, alderdi batek kontziliaziora jo ahal izango du, Konbentzio honen eranskinean azaltzen den prozedurarekin bat. Alderdiek fede onez aztertuko dute Kontziliazio Batzordeak eztabaida konpontze aldera egiten duen proposamena.

4. Berrespena, onespina, onarpena edo atxikipena emateko unean, alderdi bakoitzak adierazi ahal izango du ez duela onesten arestian zehaztu den kontziliazio-prozedura. Adierazpen hori egiten duten alderdi guztiek edozein unetan bota dezakete atzera, UNESCOko zuzendari nagusiari jakinarazpena bidalita.

26. artikulua - Kide diren estatuak berrestea, onestea, onartzea edo atxikitzea

1. Konbentzio honek UNESCOko kide diren estatuak berrespena, onespina, onarpena edo atxikipena behar du; estatu bakoitzak bere konstituzio-prozedurei jarraiki egingo du hori guztia.

2. Berresteko, onesteko, onartzeko, edo Konbentzioari atxikitzeo agiriak UNESCOko zuzendari nagusiari aurkeztu behar zaizkio.

27. artikulua - Atxikitzea

1. UNESCOko kideak ez diren estatuak Konbentzio honi atxiki ahal izango zaizkio, baldin eta Nazio Batuen Erakundeko edota horren erakunde espezializatu bateko kide badira eta Erakundearen Biltzar Nagusiaren Konbentzioari atxikitzeo gonbit egin badie.

2. Era berean, Konbentzio honi atxikitzeo bidea zabalik egongo da barneko autonomia osoa duten lurraldeentzat, betiere, Nazio Batuen Erakundeak hala aitortu badie eta nahiz eta, Batzar Orokorraren 1514 (XV) Ebazpenarekin bat, independentzia osoa lortu ez izan, baldin eta eskumena badute Konbentzio honek arautzen dituen gaietan, gai horiekin lotuta dauden itunak sinatzeko eskumena barne.

3. Ondoko xedapenak aplikatuko zaizkie eskualdeko ekonomia integratuziorako erakundeei:

a) Konbentzio honi atxikitzeo bidea irekirik egongo da, halaber, eskualdeko ekonomia integratuziorako erakundeentzat, betiere, ondoko idatz-zatietan ezarritakoa betetzen badute, eta Konbentzio honen xedapenak betetzen badituzte, kide diren estatuak bezalaxe.

b) Mota horretako erakunde bateko kide den estatu bat (edo batzuk) Konbentzio honetako kide bada (edo badira), erakunde horrek eta kide den estatu horrek edo estatu horiek erabakiko dute zein diren beren Erantzukizunak, Konbentzio honen esparruan estatu eta erakundeok dituzten betebeharrak betetzeari dagokionez. Erantzukizunen banaketa horrek eraginak izango ditu

beheko c) idatz-zatian ezarritako jakinarazpen-prozedura burutu ondoren. Erakundeak eta kide diren estatuek ez dute eskumenik izango Konbentzio honek eragindako eskubideak aldi berean baliatzeko. Horrez gain, beren eskumeneko arloetan boto-eskubidea erabili hala izateko, eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakundeak Konbentzio honetako kide diren estatuek duten boto-kopuru bera izango du. Erakundeak ez du boto-eskubidea erabiliko, kide diren estatuek erabiltzen badute, eta alderantziz.

c) Eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakundeak eta erakunde horretako kide den (edo diren) estatuak (edo estatuek) erantzukizunak goiko b) idatz-zatian jasota dagoen moduan banatzea adosten badute, horren berri eman behar diote alderdiei, honela:

i) Atxikitzeke agirian, erakunde horrek zehaztasunez adieraziko du nola banatuko dituen erantzukizunak Konbentzio honetan jasotzen diren gaiei dagokienez.

ii) Erantzukizunak, geroago, nola edo hala aldatzen badira, eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakundeak aditzera emango dio gordailuzainari erantzukizun horiek aldatzeko egindako proposamenen berri, eta, horrek, bestalde, alderdiei jakinaraziko die.

d) Eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakunde bateko kide diren estatuek, hain zuzen, Konbentzioko kide izatera iritsi diren horietatik, eskumena izaten jarraituko dute, berariaz edo gordailuzainari adierazirik, eskumena erakundeari transferitu ez zaion arlo guztietan.

e) "Eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakunde" da Nazio Batuetako kide diren estatuek edo haren erakunde espezializatu batek eraturitako erakunde bat, estatu horiengandik Konbentzio honek arautzen dituen arloetan estatuei dagozkien eskumenak jaso dituen, eta Konbentzioaren eskutik Konbentzioko kide izateko baimena jaso duena, Konbentzioak berak, bere barne-prozedurei jarraiki, emandako baimenaren arabera.

4. Atxikitze-agiria UNESCOko zuzendari nagusiari aurkeztu behar zaio.

28. artikulua - Harremanetarako pertsona

Konbentzio honetako kide izatean, alderdi bakoitzak 9. artikuluan aipatutako harremanetarako pertsona izendatuko du.

29. artikulua - Indarrean sartzea

1. Konbentzio hau indarrean sartuko da berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeke hogeita hamargarren agiria gordailatu eta handik hiru hilabetera; baina soil-soilik berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeke agiriak egun horretan edo lehenago gordailatu dituzten estatuei eta

eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakundeei. Gainerako alderdiei begira, aldiz, berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeke agiria gordailatu eta handik hiru hilabetera sartuko da indarrean.

2. Artikulu honen ondorioei begira, ez da ulertuko eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakunde batek gordailatutako edozein motatako agiriak erakunde horretako kide diren estatuek lehendik jarritako agiriari gehitu behar zaizkienik.

30. artikulua - Konstituzio-araubide federalak edo unitarioak ez direnak

Kontuan izanik nazioarteko akordioek alderdiak ere lotzen dituztela, haien konstituzio-sistema zein den aintzat hartu gabe, konstituzio-araubide federala edo unitarioa ez den konstituzio-araubidea duten alderdiei xedapen hauek aplikatuko zaizkie:

a) Legegintza-botere federalak edo zentralak ezarri behar dituen Konbentzio honetako xedapenei dagokienez, gobernu federalaren edo zentralaren betebeharrak federalak ez diren estatuetako alderdiek dituzten betebeharrak berberak izango dira.

b) Unitate eratzaileek (estatuak, konderriak, probintziak edo kantoiak), beren eskumena denez gero, ezarri behar dituzten Konbentzio honetako xedapenei dagokienez, eta unitate eratzaile horiek, federazioko konstituzio-araubidearen arabera, legegintzako neurriak hartzeko ahalmenik ez badute, bada, kasu horretan, eta beharrezkoa bada, gobernu federalak xedapen horien aldeko irizpena jakinaraziko die unitate eratzaileetako (estatuak, konderriak, probintziak edo kantoiak) agintari eskudunei, xedapenok onar ditzaten.

31. artikulua - Konbentzioa salatzea

1. Konbentzio honetako alderdi guztiek Konbentzioa sala dezakete.

2. Salaketa egiteko, idatzizko agiri bat aurkeztu behar zaio UNESCOko zuzendari nagusiari.

3. Salaketak salaketaren agiria jaso eta 12 hilabete igaro ondoren izango du eragina. Salaketa egin izanak ez ditu inola ere aldatuko alderdi salatzaileak, Konbentziotik benetan alde egiten duen arte, bere gain hartu behar dituen finantza-betebeharrak.

32. artikulua - Gordailuzainaren eginkizunak

UNESCOko zuzendari nagusiak, Konbentzio honen gordailuzaina denez, kide diren estatuei, kide ez diren estatuei, 27. artikuluan aipatzen diren eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakundeei eta Nazio Batuei jakinaraziko die 26. eta 27. artikuluan finkatzen diren berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeke agiri guztiak eta 31. artikuluan ezartzen diren salaketak gordailatu direla.

33. artikulua - Zuzenketak

1. Konbentzio honetako alderdi guztiek Konbentzioari egin nahi dizkieten zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, zuzendari nagusiari idazkia bidaliz Horrek zuzenketak jakinaraziko dizkie gainerako alderdiei. Jakinarazpena bidali eta ondoko sei hilabeteen barruan alderdien erdiak, gutxienez, eskaeraren aldeko erantzuna ematen badu, zuzendari nagusiak Alderdien Biltzarraren ondoko bileraren aurkeztuko du proposamena, aztertu, eta, hala badagokio, onartu egin dadin.

2. Zuzenketak onesteko, bertaratu eta botoa ematen duten alderdien bi heren alde egon behar dira.

3. Konbentzio honi egindako zuzenketak onetsi ondoren, alderdiek berretsi, onetsi eta onartu egin beharko dituzte, bai eta horiei atxiki ere.

4. Konbentzio honi egindako zuzenketak berretsi, onetsi edo onartu egiten dituzten edo zuzenketa horiei atxiki zaizkien alderdiei dagokienez, zuzenketa horiek guztiak alderdien bi herenek artikuluko honen 3. paragrafoan jasota dauden agiriak gordailatu eta hiru hilabetera sartuko dira indarrean. Une horretatik aurrera, zuzenketa bakoitza indarrean sartuko da zuzenketa hori berretsi, onetsi, onartu edo zuzenketa horri atxikitzen zaion alderdiarentzat, hain zuzen, alderdiak zuzenketa berretsi, onartu, onetsi edo zuzenketa horri atxikitzeko agiria gordailatu eta hiru hilabete igarotakoan.

5. Hirugarren eta laugarren paragrafoetan finkatutako prozedura ez zaie aplikatuko 23. artikuluko Gobernuen arteko Batzordeko kide-kopuruari egindako zuzenketei. Zuzenketak onesten diren unean bertan sartuko dira indarrean.

6. Artikulu honen 4. paragrafoari jarraiki zuzenketak indarrean sartu ondoren Konbentzio honetako kide bilakatzen diren estatuak eta 27. artikuluan aipatzen diren eskualdeko ekonomiaren integrazioarako erakundeak, kontrako asmorik adierazten ez badute, honelakotzat joko dira:

- a) Zuzendu den Konbentzioko kideztat; eta
- b) Zuzendu ez den Konbentzio honetako kideztat, zuzenketa horiek behartuta ez dauden alderdiei dagokienez.

34. artikulua - Jatorrizko testuak

Konbentzio hau arabieraz, txineraz, espainieraz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz idatzita dago; eta sei testu horiek berdin-berdinak dira.

35. artikulua - Erregistroa

Nazio Batuen Gutunaren 102. artikuluan xedatutakoari jarriki, Konbentzio hau Nazio Batuen Idazkaritzan erregistratuko da, UNESCOko zuzendari nagusiak hala eskatu ondoren.

ERANSKINA

Adiskidetzeko prozedura

1. artikulua - Adiskidetzeko Batzordea

Eztabaidan sartuta dagoen alderdi batek hala eskatuz gero, Adiskidetzeko Batzordea sortuko da. Alderdiek bestelakorik adosten ez badute, Batzorde horrek bost kide izango ditu –bi, alderdi interesdun bakoitzak izendatuko ditu–, eta batzordeburu bat ere bai –kide horiek batera hautatutako–.

2. artikulua - Batzordeko kideak

Bi alderdi edo gehiagoren arteko eztabaidetan, interes bera duten alderdiek, bat harturik, Batzordean izango dituzten kideak izendatuko dituzte. Bi alderdik edo gehiagok interes desberdinak badituzte edo interes bera duten alderdiek desadostasunik badute, bakoitzak bere aldetik izendatuko ditu bere kideak.

3. artikulua - Izendapenak

Adiskidetzeko Batzordea eratzeko eskaera aurkeztu eta bi hileko epea igaro ondoren alderdiek Batzordeko kide guztiak izendatu ez badituzte, UNESCOko zuzendari nagusiak, eskabidea aurkeztu duen alderdiak eskaturik, egin beharreko izendapenak egingo ditu; horretarako, bi hileko epea izango du.

4. artikulua - Batzordeburua

Adiskidetzeko Batzordeak ez badu batzordebururik izendatu batzordeko azken kidea izendatu eta ondoko bi hilabeteen barruan, UNESCOko zuzendari nagusiak, alderdi batek hala eskaturik, izendatu egingo du; horretarako, bi hileko epea izango du.

5. artikulua - Epaiak

Adiskidetzeko Batzordeak kide guztien gehiengoa izanda emango ditu epaiak. Eztabaidan sartuta dauden alderdiek besterik erabakitzen ez badute, Batzordeak berak zehaztuko du prozedura. Batzordeak eztabaida konpontzeko proposamena egingo du, eta alderdiek fede onez aztertuko dute.

6. artikulua - Desadostasunak

Adiskidetzeko Batzordearen eskumenari dagokionez desadostasunik bada, Batzordeak berak emango du horren gaineko ebazpena.



UNESCO Etxea
Urkixo zumarkalea 60, nag.,
48011 BILBO
www.unescoeh.org
944 276 432

LAGUNTZAILEAK

